

GALERNA DEL 12 DE MAYO DE 2001

El día 12 de mayo de 2001 una galerna atraviesa las costas del Cantábrico. A las 20:30 horas aparece la galerna en Punta Galea con un aumento brusco de viento y giro al noroeste en pocos minutos (13,3 km/h – 103 km/h), acompañado de un acusado descenso de la temperatura (ver figura 4.7.). Este mismo patrón se reproduce en Zarautz 1 hora 30 minutos más tarde, pero con rachas menos intensas (75 km/h). Afortunadamente, el paso de la misma se produce a primeras horas de la noche, cuando ya no existen aglomeraciones en las playas ni embarcaciones de recreo en la mar.

Esta galerna se desarrolla en un marco caracterizado por la presencia de una depresión al oeste de Galicia (ver figuras 4.1. y 4.2.) que origina un débil flujo de componente sur sobre el Cantábrico (ver figura 4.3.) y un acusado gradiente termométrico entre el Cantábrico Oriental y el Occidental (ver figuras 4.5. y 4.6.). A media tarde una masa oceánica fría se desplaza en superficie por la cornisa cantábrica alcanzando las costas del País Vasco durante la noche, provocando un giro del viento al oeste-noroeste acompañado de un brusco aumento de la velocidad del mismo (ver figura 4.4.).


La galerna, como fenómeno brusco y repentino, es un fenómeno meramente costero y superficial. En los valles del interior y en Alava ésta llega muy debilitada. En montaña se observa la mezcla de dos fenómenos distintos, el aumento del viento sur sinóptico por la aproximación de la depresión atlántica y el giro y aumento del viento producido por la galerna a última hora del día, no llegando en ningún caso a las velocidades registradas en la costa (ver Jaizkibel y La Garbea en la figura 4.7.).

2001EKO MAIATZAREN 12KO ENBATA

2001eko maiatzaren 12an enbat batek Kantauri itsasoko kostaldea zeharkatu zuen. Iluntzeko 20:30etan Galean sortu zen enbata, bat-batean haizea zakartuz eta minutu gutxitan ipar-mendebalderuntz bira eginez (13,3 km/h – 103 km/h), horrekin batera tenperatura nabarmen erortzen delarik (ikus 4.7 irudia). Eredu hori bera ordu eta erdi beranduago Zarautzen gertatu zen berriro, baina haize-parrastak ez ziren hain indartsuak izan (75 km/h). Zorionez, enbat hori gaueko lehen ordutan igaro zen, hondartzetan ia jenderik geratzen ez zenean, eta itsasotik ere ontziak ezkutatuta zeudenean.


Enbat hori egoera jakin baten ondorio da: Galizia mendebaldean depresio bat zegoen (ikus 4.1 eta 4.2 irudiak), eta depresio horrek hegotik jotzen duen haize-fluxu ahul bat eragiten du Kantauri itsasoan (ikus 4.3 irudia) eta tenperatura-gradiente nabarmen bat Kantauri ekialdetik mendebaldera bitartean (ikus 4.5 eta 4.6 irudiak). Arratsalde-erdian ozeanoko aire-masa hotz batek kantauriko kostan azal-azaletik egiten du aurrera, eta gauez EAEko kostara iristen denean, haizea aldatu eta mendebal-iparmendebaldetik jartzen du, abiadura ere zakar asko handituzten duelarik (ikus 4.4 irudia).

Enbata, bat-bateko haize-bolada zakarra, kosta-kostako fenomeno azalekoa dugu. Barrualdeko bailaretara eta Arabara oso ahulduta iritsi ohi da. Mendialdean, oster, bi fenomeno desberdinen azarnak ageri zaizkigu nahasirik: batetik, Atlantikoko depresioa hurbiltzean hego-haizea handitu egiten da, eta, bestetik, enbatak egun hartako azken orduan eragindako haize aldaketa eta abiadura-igoera ere erregistraturik geratu dira, baina inolaz ere kostaldean jasotako abiaduretara iritsi gabe (ikus Jaizkibel eta La Garbea 4.7 irudian).




4.1 irudia. Análisi mapa.

Figura 4.1. Mapa de análisis.




4.2 irudia. Análisi mapa.


Figura 4.2. Mapa de análisis.




4.3 irudia. Geopotentiala eta isotermak 500 mb-tara. 4.3 irudia. Geopotentiala eta isotermak 500 mb-tara. Figura 4.3. Geopotencial e isotermas a 500 mb.



4.4 irudia. Geopotentiala eta isotermak 500 mb-tara. 4.4 irudia. Geopotentiala eta isotermak 500 mb-tara. Figura 4.3. Geopotencial e isotermas a 500 mb.



4.5 irudia. Geopotentiala eta isotermak 850 mb-tara. 4.5 irudia. Geopotentiala eta isotermak 850 mb-tara. Figura 4.4. Geopotencial e isotermas a 500 mb.



4.6 irudia. Geopotentiala eta isotermak 850 mb-tara. 4.6 irudia. Geopotentiala eta isotermak 850 mb-tara. Figura 4.4. Geopotencial e isotermas a 500 mb.



4.7 irudia. EAE-ko sare hidrometeorologikoko zenbait estazio automatikotako aldagai meteorologikoen datuak.

Figura 4.7. Registros de algunas variables meteorológicas en distintas estaciones automáticas de la Red Hidrometeorológica del País Vasco.